

## Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile, **Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **‘Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko’** hurrengo aurkezten dio **Legez Besteko Proposamena** aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin:

### **ZIOA:**

2007ko urriaren 5ean Eusko Legebiltzarrean egin zen biktimen gaineko osoko bilkura monografikoak ebazpenen artean onartu zuela “motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimei aitortza moral eta ordaintza egiteko beharrezko neurriak aztertzea.

2008ko ekainaren 13ko “Motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketen biktimei buruzko txostena” Legebiltzarrera ekarri zen, Eusko Legebiltzarrak egindako eskariaren lehenengo agindua betez.

Ildo beretik, Biktimen Harretarako zuzendari Maixabel Lasak 2009ko ekainaren 30ean bere egin zuen eskari hori Legebiltzarrean egindako agerraldian eta esan zuen *“A nuestro juicio, sin embargo, el desarrollo de la idea de la deslegitimación de la violencia terrorista requiere, para ser creíble y completa, una respuesta de los poderes públicos a todas las situaciones de victimización injusta provocadas en el marco del contexto violento vivido en Euskadi en las últimas década”*.

Hori dela eta, Aralar legebiltzar taldeak hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

### **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA**

Eusko Legebiltzarrak Terrorismoaren Biktimen Harretarako Zuzendaritzari eskatzen dio motibazio politikoak eragindako giza eskubideen zapalketa jasan duten beste biktimen errealitatearen gaineko ikerketa-txostenak jasotzen dituen biktimei ordaintza egiteko beharrezko neurriak jasoko dituen proposamena ekar dezala, gehienez ere, hiru hilabeteko epean.

**Gasteizen, 2009ko azaroaren 9an**

**Aintzane Ezenarro Egurbide**  
**Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea**